



KIROL ZERBITZUEN DIRULAGUNTZEN ORDENANTZAK

Dirurik irabazteko asmorik gabeko kirol elkarteei, norbanakoei eta zenbait kirol jarduera burutzeko elkartzen diren pertsoneri dirulaguntzak emateko oinarriak, 2005tik aurrera Mutrikuko udalerrian kirola eta soin jarduerak suspertzeko.

Lehenengoa. Helburua.

Deialdi honen helburua Mutrikuko Udalerriko dirurik irabazteko asmorik gabeko kirol elkarteei, norbanakoei eta zenbait kirol jarduera burutzeko elkartzen diren pertsoneri dirulaguntzak emateko oinarriak arautzea da, 2005tik aurrera Mutrikuko udalerrian kirola eta soin jarduerak suspertzeko. Jarduera hauek, beti ere, bat egin behar dute Mutrikuko Udalaren Kirol Politikaren helburuekin.

Dirulaguntzak ondorengo ataletan oinarrituta eskatu ahal izango dira:

- a) Mutrikuko Kirol erakunde eta taldeen jarduerak.
- b) Kirol sustapenerako aldiari behingo edo ezohiko jarduerak.
- d) Teknikarien formakuntza jarduerak.
- e) Banakako kirolarien jarduerak sustatzeko laguntzak.
- f) Herrikirolak. Herri kiroleko modalitateak egitea.

Bigarrena. Finantziarioa.

Udalak dirulaguntza hauek emateko ondorengo aurrekontu atalak osatuko ditu:

- a) Kirol elkarten ohiko jarduerak sustatzeko diru laguntzak.
- b) Kirol sustapenerako jarduera puntualak edo ezohikoak egiteko diru laguntzak.
- d) Teknikarien formakuntza sustatzeko laguntzak.
- e) Banakako kirolarien jarduerak sustatzeko laguntzak.
- f) Herrikirolak. Herri kiroleko modalitateak egitea.

Atal hauek urteroko Udalaren aurrekontu orokorrarekin batera onartuko dira, eta bertan aurrikusitako diru-kopurua izango da dirulaguntzetarako emango den diru guztia.

Hirugarrena. Irizpide orokorrak.

Dirulaguntza borondatezkoa eta behin behinekoa da eta berau emateak ez du Udala derrigortuko hurrengo deialdietan ere ematera.

Diru laguntza lerro bakoitza ematerakoan ondorengo irizpide orokorrak izango dira kontutan:

- a) Kirol elkarten ohiko jarduerak sustatzeko diru laguntzak,
 - Elkarten egituraketa maila, dimentsioa, egonkortasuna, eta kalitatea.
 - Atal teknikoetan, barne antolakuntzakoetan eta administratiboetan ahalmena eta kalitatea.
 - Euskararen tratamendua.
 - Herritar guztiei zuzenduriko Aisialdi edo Guztiontzako Kirolaren inguruan eginiko jarduerak edo urteko programa.



Mutrikuko Udala

► **Kirol zerbitzua**

- Eskola kirola bultzatzeko ikastetxeekin gauzaturiko elkarlana.
- Herri Kiroletako modalitateak egitea.
- b) Kirol sustapenerako jarduera puntualak edo ezohikoak egiteko diru laguntzak.
 - Nori zuzentzen den ekintza, eta partaidetzaren kopurua eta ezaugarriak.
 - Ekimena burutzeko baliabideak; pertsona kopurua eta funtzioak, finantziaketa iturriak eta kopuruak, ekintzaren hedapenerako baliabideak...
 - Mutrikuko kirol praktikaren sustaketan duen eragina.
 - Egitasmoaren iraupena eta jarraipena.
 - Euskararen tratamendua.
- d) Teknikarien formakuntza sustatzeko laguntzak.
 - d.1. Kirol titulazioak atera eta birziklai ikastaroak egiteko,
 - Kirol titulazioaren edo formakuntzaren maila.
 - Eskatzaileak, Mutrikuko Kirol Sistemaren barruan teknikari edota bolondres moduan burututako lanak.
 - Ikastaroaren iraupena.
 - Erakunde antolatzailea.
 - d.2. Formakuntza ikastaroak antolatzeko,
 - Ikastaroaren iraupena, edukiak, irakasleriaren maila, eta nori zuzendurik dagoen.
- e) Banakako kirolarien jarduerak sustatzeko laguntzak
 - Kirolariaren maila (lehiaketa maila), dimentsioa, egonkortasuna, eta kalitatea.
 - Atal teknikoetan, barne antolakuntza eta administratibo ahalmena eta kalitatea.
 - Euskararen tratamendua.
 - Urteko Jarduerak: Programa eta Finantziaketa (sarrerak eta gastuak).
 - Udalarekin elkarlana.
- f) Herri Kiroletako modalitateak egitea.
 - Kirol elkartearen maila (lehiaketa maila), dimentsioa, egonkortasuna, eta kalitatea.
 - Atal teknikoetan, barne antolakuntza eta administratibo ahalmena eta kalitatea.
 - Euskararen tratamendua.
 - Urteko Jarduerak: Programa eta Finantziaketa (sarrerak eta gastuak).
 - Udalarekin elkarlana.

Laugarrena. Eskatzaileak.

Oinarri hauen bidez arautzen diren laguntzak ondorengo baldintzak betetzen dituzten pertsona fisiko edota juridikok eskatu ahal izango dituzte:

- a) Kirol elkarteen jarduerak sustatzeko dirulaguntzak.

- Indarrean dagoen legeriaren arabera eratuta egotea, eta Eusko Jaurlaritzaren Kirol Elkarte eta Erakundeen Erregistroan izena emanda edukitzea.



Mutrikuko Udala

► **Kirol zerbitzua**

- Identifikazio Fiskaleko Kodea izatea, eta betebeharrak fiskalak egunean edukitzea.
 - Egoitza Mutrikun izatea.
 - Klub edo elkarte eskatzaileak aurrera eramango duen jardueraren, Mutrikuko Udala Kirol Politikari inongo oztoporik sortu gabe, honen helburu eta egiturarekin bat etortzea.
 - Eskaera eta eskaera epeei dagokien baldintzak betetzea.
 - Euskarari dagokionez, Udala Ordenantzetan zehaztutakoa betetzea.
 - Mutrikuko Klubaren Batzordearen partehartzea.
- b) Kirol sustapenerako jardueraren puntualak edo ezohikoak egiteko dirulaguntzak.
- Jarduera Mutrikuko Udalerrian gauzatzea guztiz, edo neurri handi batean behintzat.
 - Jardueraren helburua eta garapena, Mutrikuko Udala Kirol Politikaren helburu nagusiarekin eta Udala Kirol Sistemaren egiturarekin bat etorriko da.
 - Eskaera eta eskaera epeei dagokien baldintzak betetzea.
 - Euskarari dagokionez, Udala Ordenantzetan zehaztutakoa betetzea.

Laguntza hau kirol elkartei, norbanakoei, eta eratu gabeko taldeei zuzentzen zaie. Kirol zerbitzu enpresek ere eskaera egiteko aukera izango dute, aukera txikia edo eza duten biztanleri taldeei zuzenduriko eskaintza berriak abian jartzeko bada.

d) Teknikarien formakuntza sustatzeko laguntzak.

d.1.) Kirol titulazioak atera eta birziklari ikastaroak egiteko

- Norbanakoak

Mutrikun erroldatuta egotea edota mutrikun teknikari lanetan jardutea.

d.2. Formakuntza ikastaroak antolatzeke

- Kirol elkarteak

· Legez osatutako erakunde, elkarte, talde eta antzeko izaera edukitzea.

· Ikastaroa Mutrikuko Udalerrian gauzatzea.

· Eskaera eta eskaera epeei dagokien baldintzak betetzea.

e) Banakako kirolarien jarduerak sustatzeko laguntzak.

– Kirolariaren maila (lehiaketa maila), dimentsioa, egonkortasuna, eta kalitatea.

– Atal teknikoetan, barne antolakuntza eta administratibo ahalmena eta kalitatea.

– Euskararen tratamendua.

– Urteko Jarduerak: Programa eta Finantziaketa (sarrerak eta gastuak).

– Udalarekin elkarlana.

Laguntza hau banakako kirolariei zuzenduta dago. Eskatzen den lehendabiziko baldintza herritarra izatea da. Herrian praktikatzeko duen elkarerik egon ezean, beste herri batean aritzea ere baliogarria izango da, beti ere herrian bertan aritzeko borondatea erakutsi eta gero.



Mutrikuko Udala

► **Kirol zerbitzua**

- f) Herri Kiroletako modalitateak egitea.
Laguntza hau herrikirol modalitateak egiten dituzten herriko kirol elkarteai zuzenduta dago. Eskatzen den lehendabiziko baldintza herritarra izatea da eta herriaren izenean aritzea da. Kontutan hartzen diren atalak:
- Kirol elkartearen maila (lehiaketa maila), dimentsioa, egonkortasuna, eta kalitatea.
 - Atal teknikoetan, barne antolakuntza eta administratibo ahalmena eta kalitatea.
 - Euskararen tratamendua.
 - Urteko Jarduerak: Programa eta Finantziaketa (sarrerak eta gastuak).
 - Udalarekin elkarlana.

Bosgarrena. Eskaeren aurkezpena.

Laguntza hauek eskatu nahi dituztenek ondorengo urratsak bete beharko dituzte:

1. Eskaerak egiteko Mutrikuko Udaletxeko Harrera bulegoan diren dirulaguntzak eskatzeko eskaera-orri ofizialak bete behar dira.

2. Egitasmo edo jardueraren arduradunak dirulaguntza eskatu ahal izateko, eskaera-orri ofizialaren atal guztiak bete beharko ditu.

3. Deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera hilabete epean aurkeztu beharko dira kirol elkarten jardueretako eskaerak. Ohiz kanpoko kirol jardueren kasuan eskaera gutxienez ekimena burutu baino hilabete lehenago egin beharko da eta formakuntza sustatzekotan, ikastaroa hasi baino 15 egun lehenagorarte.

4. Eskaerekin batera ondorengo agiriak ekarri beharko dira:

- a) Kirol elkarten jarduerak sustatzeko dirulaguntzetan,
- Lehendabiziko aldiz dirulaguntza eskatzen duten kirol talde edo elkarteak:
 - Eusko Jaurlaritzako kirol elkarte edo erakundeen erregistroan erroldatuta daudeneko agiria.
 - Elkartearen edo erakundearen estatutuak.
 - Orain arte burututako jardueren txostena: helburuak, giza eta material baliabideak, etab.
 - Arduradun (ar) en NANaren fotokopia (k).
 - Identifikazio Fiskalerako Kodearen fotokopia.
 - Klub edo elkarte guztientzat:
 - Diru laguntza eskatzen den urterako jardueren txostena;
 - Urte honetarako helburuak
 - Ekintzen egutegia
 - Talde kopurua eta maila
 - Kirolarien zerrenda, dagokion federazioak emanda.
 - Antolaketa lanetan parte hartuko duten pertsona kopurua eta bakoitzaren funtzioak



Mutrikuko Udala

► **Kirol zerbitzua**

Teknikari eta zuzendari lanetan dauden pertsonen zerrenda, dagokion federazioak emanda.

Diru sarrera eta gastuen aurrekontua.

Elkartearen ekintza eta jardueren zabalkundea edo hedapena

Azkeneko asanblada orokorraren akta.

Bazkideen zerrenda; izen, abizenak eta adina.

- Herritar guztiei zuzenduriko Aisialdi edo Guztiontzako Kirolaren inguruan antolatutako ekintza kopurua eta hauen partaidetza datuak; mutrikuar kirolarien zerrenda, adina eta sexua adieraziz.
- Teknikarien titulazio ofizialaren fotokopia.
- Eskola kiroleko programa garatzeko ikastetxeekin sinatutako hitzarmena.
- Aurreko urtean edo denboraldian beste erakunde pribatu edo publikoren batetik jasotako edo hitzartutako dirulaguntzak, behar bezala egiaztatuta. Dirurik jasotzen ez badu, zinpeko aitortpena.

b) Kirol sustapenerako jarduera puntualak edo ezohikoak egiteko diru laguntzetan, Kirol elkarte, norbanako, eratu gabeko talde eta zerbitzu enpresentzat:

- Arduradun (ar) en NANaren fotokopia.
- Arduradun (ar) en, kirol elkarte edo erakundearen Curriculum Vitae.
- Jarduerarako istripu eta erantzukizun zibileko aseguruaren kopia.
- Antolaketa txostena ondorengo puntuak jorratuz:
 - i. Jardueraren helburua
 - ii. Antolaketa lanetan parte hartuko duten pertsona kopurua eta bakoitzaren funtzioak
 - iii. Aurrekontua
 - iv. Beste baliabideak
 - v. Partaidetza kopurua eta ezaugarrien aurrikuspenera
 - vi. Jardueraren antolaketa eta garapeneraren kronologia
 - vii. Jardueraren zabalkundea edo hedapena
- Udal baliabideen eskaera, hala behar izanez gero; instalakuntzak, udaltzainen partehartzea, baimen bereziak, bestelako materiala...
- Beste erakunde publiko eta/edo pribatuetatik jasotako edo horiekin hitzartutako subentzio edo dirulaguntzak, behar bezala justifikatuta. Laguntzarik jaso ezean, zinpeko aitortpena.

d) Teknikarien formakuntza sustatzeko laguntzetan,

- Norbanakoak
- Eskatzailearen NANaren fotokopia.
- Teknikari moduan izandako esperientzia.



Mutrikuko Udala

▶ **Kirol zerbitzua**

- Ikastaroaren informazio triptikoaren fotokopia edo ezaugarrien txostena ondoko atalak landuz; izenburua, erakunde antolatzailea, non, hasera eta bukaera datak, iraupena ordutan, irakasleria, aurkeztuko diren gaiak e.a.

- Kirol elkarteak

- Ikastaroaren arduradun (ar)en NANaren fotokopia.

- Erakunde antolatzailearen Curriculum Vitae.

- Antolaketa txostena ondorengo puntuak jorratuz:

- i. Ikastaroaren beharra, helburua eta landuko diren gaiak

- ii. Iraupena ordutan eta hasiera-bukaera datak

- iii. Irakasleria

- iv. Aurrekontua

- v. Beste baliabideak

- vi. Ikastaroaren zabalkundea edo hedapena

- Udal baliabideen eskaera, hala behar izanez gero; instalakuntzak, bestelako materiala...

- Beste erakunde publiko eta/edo pribatuetatik jasotako edo horiekin hitzartutako subentzio edo dirulaguntzak, behar bezala justifikatuta. Laguntzarik jaso ezean, zinpeko aitorpena.

e) Banakako kirolarien jarduerak sustatzeko laguntzetan,

- .Eskatzailearen NANaren fotokopia. Lizentziaren fotokopia.

- .Kirolariaren maila (lehiaketa maila), dimentsioa, egonkortasuna, eta kalitatea.

- .Atal teknikoetan, barne antolakuntza eta administratibo ahalmena eta kalitatea.

- .Euskararen tratamendua.

- .Urteko Jarduerak: Programa eta Finantziaketa (sarrerak eta gastuak).

- .Beste erakunde publiko eta/edo pribatuetatik jasotako edo horiekin hitzartutako subentzio edo dirulaguntzak, behar bezala justifikatuta.

- .Laguntzarik jaso ezean, zinpeko aitorpena.

- .Udal baliabideen eskaera, hala behar izanez gero; instalakuntzak, bestelako materiala...

f) Herri Kiroletako modalitateak egitea.

- Lehendabiziko aldiz dirulaguntza eskatzen duten kirol talde edo elkarteak:

- Eusko Jaurlaritzako kirol elkarte edo erakundeen erregistroan erroldatuta daudeneko agiria.

- Elkartearen edo erakundearen estatutuak.

- Orain arte burututako jardueren txostena: helburuak, giza eta material baliabideak, etab.



Mutrikuko Udala

▶ **Kirol zerbitzua**

- Arduradun (ar)en NANaren fotokopia(k).
- Identifikazio Fiskalerako Kodearen fotokopia.

- Klub edo elkarte guztientzat:
 - Diru laguntza eskatzen den urterako jardueren txostena;
Urte honetarako helburuak
Ekintzen egutegia
Talde kopurua eta maila
Kirolarien zerrenda, dagokion federazioak emanda.
Antolaketa lanetan parte hartuko duten pertsona kopurua eta bakoitzaren funtzioak
Teknikari eta zuzendari lanetan dauden pertsonen zerrenda, dagokion federazioak emanda.
Diru sarrera eta gastuen aurrekontua.
Elkartearen ekintza eta jardueren zabalkundea edo hedapena
Azkeneko asanblada orokorraren akta.
Bazkideen zerrenda; izen, abizenak eta adina.

- Herritar guztiei zuzenduriko Aisialdi edo Guztiontzako Kirolaren inguruan antolaturiko ekintza kopurua eta hauen partaidetza datuak; mutrikuar kirolarien zerrenda, adina eta sexua adieraziz.

- Teknikarien titulazio ofizialaren fotokopia.

- Eskola kiroleko programa garatzeko ikastetxeekin sinatutako hitzarmena.

- Aurreko urtean edo denboraldian beste erakunde pribatu edo publikoren batetik jasotako edo hitzartutako dirulaguntzak, behar bezala egiaztatuta. Dirurik jasotzen ez badu, zinpeko aitorpena.

Dokumentazioa ez aurkezteak dirulaguntzari uko egiten zaiola esan nahiko du. Era berean, datuak ezkutatu edo faltsutuz gero, dirulaguntza horiek jasotzeko eskubidea galduko da eta, hala badagokio, baita hurrengoak jasotzekoa ere.

Aurreko urteetan eskaerarik aurkeztu dutenek, lehen aldiz eskatzen dutenei eskatzen zaien dokumentuak aurkeztu beharko dituzte baldin eta beren dokumentuetan aldaketaren bat egon bada.

Seigarrena. Dirulaguntzak emateko ebaluaketa eta irizpideak.

1. Aurkeztutako proiektuen arabera Kirol Batzordeak eskaerak aztertu eta ebaluatuko ditu eta honek erabakiko ditu lehentasunak eta eman beharreko zenbatekoak.

Ondoren, txostena egingo du behin betiko erabakia hartzeko. Eskaerak jasotzeko azken egunaren biharamunetik aurrera hilabeteren buruan, proposamena Gobernu Batzordeari emango zaio honek aztertu eta onar dezan.



2. Dirulaguntzak emateko kontuan hartuko diren datuak eskariarekin batera ekarri beharreko txostenetan jasoko dira:

a) Kirol elkarten ohiko jarduerak sustatzeko diru laguntzak.

EBALUAKETA EGITEKO PUNTUAKETA

Kirol elkarten jarduerak sustatzeko diru laguntzak.

1. KIROL ELKARTEEN EGITURA: % 35

Elkarteen egituraketa maila, dimentsioa, egonkortasuna, eta kalitatea.

1.1 Lizentzia kopurua. %25

Aurtengo denboraldian taldean federatutako kirolari mutrikuarren kopurua eta ezaugarriak. Diru edo lan saria jasotzen duen jokalariren bat duen taldea, ez da sartuko baremoa egiterako orduan; eta kirolariaren gastuak ere ez dira kontutan izango aurrekontuak aztertzerakoan:

18tik gorako gizonezkoak: puntu 1

18tik gorako emakumezkoak eta 18tik beherako mutilak: 2 puntu

18tik beherako neskak: 3 p.

1.2 Autofinantziaketa maila. %10

Udalaren diru laguntzak guztizko aurrekontuarekiko suposatzen duen portzentaia:

%50 tik gora: 1 p.

%40 eta %50 artean: 2 p

%40 eta %35 artean: 5 p.

%35 eta %30 artean: 8 p.

%30 baino gutxiago: 10 p.

%15 baino gutxiago: 15 p.



2. KUALIFIKAZIO TEKNIKOA: %12

Atal teknikoetan, barne antolakuntzakoetan eta administratiboetan kalitatea sustatu beharko dute.

Teknikari edo entrenatzaile kopurua, maila eta zein talde gidatzen duten.

Soin Hezkuntzan lizentziatuak: 10 p.

Kirol Jarduera fisikoak gidatzeko teknikariak: 7 p.

Goi mailako teknikariak (entrenatzaile nazionalak): 7 p.*

Erdi mailako teknikariak (lurralde mailako entrenatzaileak): 5 p.*

Oinarrizko teknikari edo monitorea kopurua (gaztetxo mailako entrenatzaileak): 3 p.*

Erantzukizun teknikoak eta bestelako prestakuntza ez-ofiziala dituzten pertsonako (monitorea, entrenatzaileak, etab.): p. 1

Bestelako teknikari kopurua: medikuak, fisioterapeutak, masaiariak, prestatzaile fisikoak...: p. 1

Bestelako funtzioak betetzen dituzten pertsona kopurua; "botilleroak", mantenu arduradunak e.a.: p. 1

S.H. Lizentziatuak, Goi eta Erdi mailako kirol teknikariak, kadete eta jubeniletan aritzen badira hauen puntuaketa 1,5egatik biderkatuko da.

Goi, erdi eta oinarrizko kirol teknikarien puntuaketak, kirol titulazioen lege berriaren (RD 1913/1997) arabera ateratako titulazioei dagokie. Beraz egungo titulazioen puntuaketak hauek dira:

Goi mailako teknikariak (entrenatzaile nazionalak): 4 p.

Erdi mailako teknikariak (lurralde mailako entrenatzaileak): 3 p.

Oinarrizko teknikari edo monitorea kopurua (gaztetxo mailako entrenatzaileak): 1,5 p.

3. EUSKARAREN TRATAMENDUA: % 8

Bere jarduera esparruan euskara erabiltzeko egindako ahalegina.

8 puntu arte.

4. UDAL ETA IKASTETXEEKIN ELKARLANA. %35

Mutrikuko Kirol Zerbitzuekin eta ikastetxeekin (ESKOLA KIROLA) lankidetzakopurua eta inplikazio maila

4.1 MUTRIKUKO KIROL ZERBITZUA: %20

Udaleko programan partaidetza eta laguntza maila: GUZTIONTZAKO KIROLA...

Herritar guztiei zuzenduriko Aisialdi edo Guztiontzako Kirolaren inguruan eginiko jarduerak edo urteko programa.

Mutrikuar guztiei zuzenduriko kirol-aisialdi jarduera kopurua, eta iraupena.

Aste bat edo gutxiago irauten duten jarduera bakoitzeko: 5 p.

Aste bete baino gehio, eta 5 hilabete baino gutxiago irauten duten jarduera bakoitzeko: 7 p.

5 hilabete baino gehio irauten duten jarduera bakoitzeko: 10p.



4.2 IKASTETXEAK: ESKOLA KIROLA: %15

Eskola Kiroleko programan partaidetza eta laguntza maila.

Programan ez partehartzea: -20 p.

Aldian behingo laguntza edota hitzarmenik gabea: 10 p.

Ikastetxeekin laguntza hitzarmena bidez parte hartzea urteko programan: 30 p.

Programaren barruan buruturiko entrenamendu saio edo partidu bakoitzeko: p. 1

5. LEHIAKETA EREMUA. %10

Taldeen lehiaketa eremua %8

Talde bakoitzak lehiaketa ofizialetan izandako lehiaketa esparruagaitik:

Lurralde mailakoa.....10 p

Erkidego mailakoa.....20 p

Estatu mailakoa.....30 p

Nazioarte mailakoa.....40 p

Banakako kirol modalitateetako klubei ezartzeko baremoa, ekipo kolektibo gisa hartuko da zortzi kirolari banakakoak osatutako taldea eta talde kiroletan erabili den baremo bera ezarriko da.

Zortzi lagun baino gutxiagoko taldea balitz, edota metatuak zortzi kirolariko taldea gainditzen badu baina ez bada iristen zortziko talde bat osatzera, lehiaketa esparru bakoitzerako jarritako puntuazio marjina proportzionala izango da.

Ohiz kanpoko lehiaketetara bidaiak. % 2

Ohiz kanpoko izaerakoak izanik egutegi ofizialetan(sektoreko faseak edo/eta txapelketak) sartuta dauden lehiaketetara 2003ko irailaren 1 etik 2004ko

abuztuaren 31 ra egindako bidaiengaitik, Gipuzkoako L.H tik kanpo egiten direnak badira. Puntu banaketa ondorengo eragiketaren ondorio izango da:

$$P = \frac{\text{Km kopurua (joan etorria)} \times \text{Taldeko kide kopurua}}{1000}$$



Mutrikuko Udala

► Kirol zerbitzua

Elkarte bakoitzaren puntuaketa zenbatu ostean, diru kopuruak ezartzea bi erataraino egin daiteke;

1) Elkarten jarduerak sustatzeko dirulaguntza partidaren kopurua aurrez ezarri (Gk). Elkarte guztiek ateratako puntuaketa batu (Gp) eta hau %100a izaki, bakoitzari dagokion portzentaia (E%) atera, eta ondoren elkarte bakoitzari dagokion diru kopurua (Ek).

$$(E_p \times 100) / G_p = E\% \rightarrow (E\% \times 100) / G_k = E_k$$

2) Puntu bakoitzari diru kopuru finko bat ezarri (puntu 1 = ____.-€) eta gero, lortutako puntuengandik biderkatu (____ puntu x ____.-€ = ____.-€)

b) Kirol sustapenerako jarduera puntualak edo ezohikoak egiteko diru laguntzak.

Ebaluaketarako aipatzen diren irizpideak betetzen diren neurrian, ekintza aurrekontuaren %50 arteko laguntzak eman ahalko dira.

Kontutan hartzen diren puntuak:

Nori zuzentzen den ekintza eta partaidetza.

- Ekintzaren izaera; federatuei mugatua, partehartze herrikoia, elkarteko kideei zuzendurik...

- Partehartzaile mutrikuarren kopurua eta ezaugarrien aurikuspena.

Ekimena burutzeko baliabideak

- Antolaketan parte hartu duten pertsona kopurua.

- Hedapenaren ezaugarriak eta erabiliko diren euskarriak.

Mutrikuko kirol praktikaren sustaketan duen eraginaren adierazleak edo datuak.

Euskararen tratamendua.

- Bere jarduera esparruan euskara erabiltzeko egindako ahalegina.

Egitasmoaren iraupena eta jarraipena.

Autofinantziaketa maila.

- Udalaren diru laguntzak guztizko aurrekontuarekiko suposatzen duen portzentaia.

d) Teknikarien formakuntza sustatzeko laguntzak.

d.1. Kirol titulazioak atera eta birziklai ikastaroak egiteko,

Ikastaroaren ezaugarrien eta eskatzailearen perfilaren arabera ondorengo laguntzak emango dira.

- Kirol Teknikari Titulazioak ateratzeko ikastaroetan, matrikularen %35a arte.

- Kirola euskaraz ikastaro guztietan kuotaren %100 arte, eta Mutrikun ez diren ikastaroetan joan-etorrietan egindako kilometro bakoitzeko 0,09 €.

- Beste formakuntza ikastaroak: %50 arte.

d.2. Formakuntza ikastaroak antolatzeko,

Ikastaroaren iraupena, edukiak, irakasleriaren maila, eta nori zuzendurik dagoen arabera, ikastaroaren kostuaren %75 arte.



e) Banakako kirolarien jarduerak sustatzeko laguntzak.

Kirolariaren maila (lehiaketa maila), dimentsioa, egonkortasuna, eta kalitatea. Atal teknikoetan, barne antolakuntza eta administratibo ahalmena eta kalitatea. Euskararen tratamendua.

Urteko Jarduerak: Programa eta Finantziaketa (sarrerak eta gastuak). Udalarekin elkarlana.

f) Herri Kirolak. Herri kiroletako modalitateak egitea.

Herri kiroletan sartzen diren kirol elkarteentzat dagoen subentzioa.

Klub bakoitzarentzako Udalarekin adosturiko plan edo programa bereziaren dimentsioa.

Ekintza planak diseinatu ondoren eta beharren arabera zehaztuko da elkarte bakoitzari dagokiona.

3. Deialdi bakoitzean gehienera eman ahal izango diren dirulaguntzen kopuruak eta zenbatekoak honako hauek dira:

a) Kirol elkarten jarduerak.

Oro har, proposatzen den dirulaguntzaren kopuruak ez du egitarauak duen aurrekontuaren %50 gaindituko, aparteko kasuetan izan ezik. Horietan, Kirol Batzordeko Lehendakariak behar bezala justifikatutako proposamena egin ondoren, kopuru handiagoa eman ahal izango da.

b) Kirol sustapenerako jarduera puntualak edo ezohikoak.

Kasu konkretu bakoitzean, bere aparteko ezaugarriak direla bide, finantzaketa berezia behar duten jarduerak dira. Oro har, proposatzen den dirulaguntzaren kopuruak ez du egitarau edo jarduerak duen aurrekontuaren %50 gaindituko, aparteko kasuetan izan ezik. Horietan, Kirol batzordearen Lehendakariak behar bezala justifikatutako proposamena egin ondoren, kopuru handiagoa eman ahal izango da.

d) Teknikarien formakuntza sustatzeko laguntzak.

Kasu konkretu bakoitzean, bere aparteko ezaugarriak direla bide, finantzaketa berezia behar duten jarduerak dira. Oro har, proposatzen den dirulaguntzaren kopuruak ez du egitarau edo jarduerak duen aurrekontuaren %50 gaindituko, aparteko kasuetan izan ezik. Horietan, Kirol batzordearen Lehendakariak behar bezala justifikatutako proposamena egin ondoren, kopuru handiagoa eman ahal izango da.

e) Banakako kirolarien jarduerak sustatzeko laguntzak.

Kasu konkretu bakoitzean, bere aparteko ezaugarriak direla bide, finantziaketa arloan ezberdintasun handiak egongo dira kirolari batzuen eta besteen artean. Hori ere kontutan hartuko da zenbatekoak emateko orduan.

f) Herri Kirolak. Herri kiroletako modalitateak egitea.

Kasu konkretu bakoitzean, bere aparteko ezaugarriak direla bide, finantziaketa arloan ezberdintasun handiak egongo dira kirol elkarte batzuen eta besteen artean. Hori ere kontutan hartuko da zenbatekoak emateko orduan.



4. Dagokien partidako aurrekontu-esleipenak arte eman ahal izango dira gehienera dirulaguntzak.

Zazpigarrena. Dirulaguntzen ordainketa.

Dirulaguntzen ordainketak, eskatutako laguntza lerroaren baitan gauzatuko dira:

a) Kirol elkarteen jarduerak sustatzeko diru laguntzak.

Dirulaguntzak bi epetan ordainduko dira. Erabakiaren jakinarazpenarekin batera taldeari dirulaguntzaren %50 ordainduko zaio, eskaera epea amaitu eta hurrengo bi hilabetetan. Bigarren erdia, memoria aurkezteko epea amaitu eta hilabete barruan ordainduko da. Memoriak aurkezteko epea abenduaren 15ean bukatuko da. Dokumentazio hau aurkezten ez bada, automatikoki galdu egingo da onartutako zenbatekoa.

Memoriaren edukiak:

Helburuak zein neurritan bete diren.

Lorturiko kirol emaitzak edota sailkapenak.

Diru kontuen kitapena, gastu guztiak dagokien ordainagiriekin justifikaturik.

Jarduerak burutu direneko agirien dossierra (kartelak, prentsa oharrak e.a.)

Kirol sustapenerako jarduera puntualak edo ezohikoak egiteko diru laguntzak.

Lehenengo %50ren ordainketa, eskaera onartzen den jakinarazpenarekin batera egingo da. Gainerako %50 ekimenaren memoria laburra jaso ondorengo bi asteren barruan ordainduko da. Dokumentazio hau aurkezteko epea, ekintza bukatu eta 15 egunetakoa da.

b) Kirol sustapenerako jarduera puntualak edo ezohikoak.

Dirulaguntzak bi epetan ordainduko dira. Erabakiaren jakinarazpenarekin batera taldeari dirulaguntzaren %50 ordainduko zaio, eskaera epea amaitu eta hurrengo bi hilabetetan. Bigarren erdia, memoria aurkezteko epea amaitu eta hilabete barruan ordainduko da. Memoriak aurkezteko epea abenduaren 15ean bukatuko da. Dokumentazio hau aurkezten ez bada, automatikoki galdu egingo da onartutako zenbatekoa.

Memoriaren edukiak:

Helburuak zein neurritan bete diren.

Lorturiko kirol emaitzak edota sailkapenak.

Diru kontuen kitapena, gastu guztiak dagokien ordainagiriekin justifikaturik.

Jarduerak burutu direneko agirien dossierra (kartelak, prentsa oharrak e.a.)

Kirol sustapenerako jarduera puntualak edo ezohikoak egiteko diru laguntzak.

Lehenengo %50ren ordainketa, eskaera onartzen den jakinarazpenarekin batera egingo da. Gainerako %50 ekimenaren memoria laburra jaso ondorengo bi asteren barruan ordainduko da. Dokumentazio hau aurkezteko epea, ekintza bukatu eta 15 egunetakoa da.



Mutrikuko Udala

▶ **Kirol zerbitzua**

d) Teknikarien formakuntza sustatzeko laguntzak.

Norbanakoei zuzenduriko dirulaguntzak, ikastaroaren memoria txostena igorri ondoko 15 egunen barruan ordainduko dira. Txostenaren edukiak; ikastaroa burutu denaren agiria, matrikula edo kuotaren agiria, eta ikastaroari buruzko balorazioa.

e) Banakako kirolarien jarduerak sustatzeko laguntzak.

Dirulaguntzak bi epetan ordainduko dira. Erabakiaren jakinarazpenarekin batera taldeari dirulaguntzaren %50 ordainduko zaio, eskaera epea amaitu eta hurrengo bi hilabetetan. Bigarren erdia, memoria aurkezteko epea amaitu eta hilabete barruan ordainduko da. Memoriak aurkezteko epea abenduaren 15ean bukatuko da. Dokumentazio hau aurkezten ez bada, automatikoki galdu egingo da onartutako zenbatekoa.

Memoriaren edukiak:

Helburuak zein neurritan bete diren.

Lorturiko kirol emaitzak edota sailkapenak.

Diru kontuen kitapena, gastu guztiak dagokien ordainagiriekin justifikaturik.

Jarduerak burutu direneko agirien dossierra (kartelak, prentsa oharrak e.a.)

Elkarteei zuzenduriko dirulaguntzak, b) puntuko jardueren baldintza berdinetan ordainduko dira.

f) Herri Kirolak. Herri kiroletako modalitateak egitea.

Dirulaguntzak bi epetan ordainduko dira. Erabakiaren jakinarazpenarekin batera taldeari dirulaguntzaren %50 ordainduko zaio, eskaera epea amaitu eta hurrengo bi hilabetetan. Bigarren erdia, memoria aurkezteko epea amaitu eta hilabete barruan ordainduko da. Memoriak aurkezteko epea abenduaren 15ean bukatuko da. Dokumentazio hau aurkezten ez bada, automatikoki galdu egingo da onartutako zenbatekoa.

Memoriaren edukiak:

Helburuak zein neurritan bete diren.

Lorturiko kirol emaitzak edota sailkapenak.

Diru kontuen kitapena, gastu guztiak dagokien ordainagiriekin justifikaturik.

Jarduerak burutu direneko agirien dossierra (kartelak, prentsa oharrak e.a.)

Kirol sustapenerako jarduera puntualak edo ezohikoak egiteko diru laguntzak.

Lehenengo %50ren ordainketa, eskaera onartzen den jakinarazpenarekin batera egingo da. Gainerako %50 ekimenaren memoria laburra jaso ondorengo bi asteren barruan ordainduko da. Dokumentazio hau aurkezteko epea, ekintza bukatu eta 15 egunetakoa da.

Zortzigarrena. Publizitatea.

Edozein komunikabidetan egingo den publizitatea euskara hutsez edo elebitan egin beharko da. Nahi izanez gero Udalaren Euskara Zerbitzuaren laguntza izango da



Mutrikuko Udala

▶ **Kirol zerbitzua**

beharrezko zuzenketak egiteko. Bestalde, publizitatean nahitaez Mutrikuko Kirol Zerbitzuen eta Udalaren laguntza adierazi beharko da.

Bederatzigarrena. Baldintzak ez betetzea.

Oinarriotan jarritako baldintzak betetzen ez badira dirulaguntza emateari utzi egingo zaio, eta halakoetan, gainera, aurrez jasotako diru guztia itzuli egin beharko da ezarritako epean beharreko agiriak ez aurkeztuz gero.

Hamargarrena. Interpretazioa.

Oinarriotan interpretazioan edo ezarpenean sor litezkeen zalantzak Kirol Batzordeak erantzungo ditu.

Hamaikagarrena. Isiltasun administratiboa.

60 eguneko epean eskaerari buruzko erantzunik jasotzen ez bada, eskaera onartu ez dela ulertuko da.